

MARIBI ALBISU - INGURUGIRO ARDURADUNA

"Bakoitzak gure hondar alea jarri behar dugu; leku batera garraio publikoan joan bagaitezke, oinez edo bizikletan, ez kotxerik hartu"

■ Eusko Jaurlaritzarentzat egiten du lan; airearen kalitatea neuritzeko Euskal Autonomia Erkidegoko sentsore sarearen arduraduna da gaur egun Maribi Albisu hernaniarra.

Meteorologia ikasketak burutu zituen eta doktorea da zientzia fisikoan. Bilboko kutsadura episodioei buruzkoa da bere tesia. Orain Bilbo-koak ez ezik Euskal Autonomia Erkidego osoko neurketak jaso eta aztertzen ditu bere lankideekin batean.

■ Nola hasi zinen lan honeitan?

Ni meteorologoa naiz eta doktorea zientzia fisikotan. Doktoratutza Bilbon gertatzen ziren kutsadura episodioei buruz egin nuen; kontuan hartzen nituen kutsadura neurgailuak, egoera atmosferikoa, itsasoko uraren temperatura... horiek guztiak egin nuen doktoregoa eta horrela hasi nintzen mundu honetan lanean.

■ Zein da zuen egitekoa?

Airearen kutsadura neurten dugu Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban, herri eta hiri ezberdinan. Hemen adibidez Osakidetzan, Osasun Zentroan dago neurgailu bat. Automatikoak dira tresna horiek. Kutsatzale ezberdinak neurten dituzte: nitrogeno oxidoak, karbono monoxidoa, sufre dioxidoa, hidrokarburoak... kutsatzale asko dago. Bestetik datu meteorologikoak ere ematen ditu: tenperatura, haizearen abiadura eta norabidea... datu horiek guztiak, satelitearen datuekin, meteosat mapekin... horrek guziarekin predikzio bat egiten da.

Jasotzen ditugun datuak bildu, aztertu eta gure web orrian ateratzen ditugu. Horazaltzen da egunean zehar airearen kalitatea zein izan den.

■ Zer da airean kutsadura



Maribi Albisu ingurugiro arduraduna.

"Airearen neurketak denbora errealean iristen zaizkigu eta trafikoaren arazo nabarmen azaltzen da, batez ere ordu jakin batzuetan"

gehien sortzen duena?

Gaur egun kutsatzale nagusiak kotxeak dira, kotxeak eta trafikoarekin zerikusia duen guztia. Fabrikak eta horrelakoak ere aipa daitezke baina nagusia galdezen badidazu, leku guztiak, trafikoa.

■ Hemengo airearen kali-

tateaz zer esan daiteke?

Ez da hain txarra egia esan. Neurketak denbora errealean iristen zaizkigu eta trafikoaren arazo nabarmen azaltzen da batez ere ordu jakin batzuetan, hora punta deitzen zaien horietan; baina joateko kotxea denek batera hartzen

dugunean...

■ Arazoa haunndiagoa izango da Bilbo bezalako hiri handietan...

Arazo haundiak trafiko gehien biltzen den tokietan dago.

■ Osasunean ere izango du eraginik...

Bai noski. Egunero partikulak arnasten ditugu eta epe luzean horrek kalte egin dezake. Orain ari dira azterketak egiten eta gainera gero eta partikula txikiagoak aztertzen dira. Sudurretik sartu eta arnasketa sistemara dijoaz zuzenean; horrela asma arazoak, alergiak eta abar hasten dira.

■ Zein proiektu duzue orain eskarteante?

Ez dakit proiektuak diren... duela urte batzuk Udaletxe batzuk beren herrien egoera zein zen jakin nahi izan zuten: Azpeitia, Hernanin aurreko lege aldian, Bizkaiko herri batzuetan... Agenda 21 Lokalean oinarrituz azterketa ezberdinak egin nahi izan ziren; zaratarena, hondakinena eta guregan jo zuten aire kutsadura neurtu eta zer egin zitekeen ikusteko. Orain arte zuzendaritzak arlo batzuk izan ditu baina

hemendik aurrera metal ezberdinak, lurrundu daitezkeen konposatuak... aztertzen hasi ginen eta poligono industrial batzuk azaldu zitzaizkigun arazotzat.

Aldaketarik izan den edo ez Agenda 21aren inguruan azterketak egiten hasi ginenetik ez dakit, hori epe luzeagoan ikusi-

ko dugu, datozen urteetan; orduan ikusiko da arazoak berdin jarraitzen duen, arazo berriak ba ote dagoen... Agenda 21ekin zenbait aspektutan informatuago egotea lortu da.

■ Zein neurri izaten dira hartzen direnak?

Egun hauetan entzun dut adibidez, gobernutik aurreko hilaren 27an dekretu bat atera dutela kutsatzileen emisio tasa mugatzeko, negutegi efektua izan dezaketen kutsatzileen emisioa murritzeko, IPPC-arekin lotuta.

Hemen ere pixkanaka jasaten joan dira emisio horiek. Lehen, ni gogoratzen naiz, zenral termikoetan fuel pisutsua erabiltzen zen, sufrea murritzua behar zen. Beste gai bat ikatz zentralena zen; hor bota zitezkeen konposatuak murritzua behar ziren. Trafikoaren arazo gero eta larriagoa da, gainera abiadura ere gero eta haundia go da eta horrek kutsadura igotzen du, kolapsoetan ere geldi daude eta kutsatzialeak bota eta bota ari dira. Trafikoaren arazo beste alternatiba batzuekin konpontzen hasi behar da; garraio publikoa era-bilaz...

■ Banakakoek zer egin dezakegu kutsadura ekiditeko?

Lehenengo kontzientziatu. Nik lan egiten dugun tokira etorzen direnei ere mezu bera ematen diet beti; bakoitzak hondar ale bat jarri behar dugu, leku batera garraio publikoan joan bagaitezke, oinez edo bizikletaz, ez kotxerik hartu. Baina kontzientzia, ez euria ari duelako Nafar kaletik Zinkoeneara kotxez joan. Denek egin dezakegu zerbait. □

KIA

CAPDEQUI ASTIGARRAGA SL

Zatoz ikustera gure modelo berriak!





KIA Konzesionario Ofiziala
Donostia Ibilbidea 76 - Tf: 943 550 495
ASTIGARRAGA

HERNANI HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guzintontzat Advanced eta First
azterketak gainditzeagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO

MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

musika eskola
DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerra
943 33 12 33 - 20120 HERNANI



Musikaren lenguia
Pianoa
Akordeoia
Panderoa
Bateria Modernoa




Trompeta
Triki-tixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

MATRIKULA ZABALIK:
IRAILAREN 6tik 17ra. Arratsaldetan, 16:00etik 20:00etara.
HELDUENTZAKO IKASKETA BEREZIAK ~ TALDE TXIKIAK ~ MUSIKA LENGUAIA 4 URTELIK




Ezetz sagarrari kosk egin! Azkenean lortu zuten bai, tranpa txiki batzuk gora behera.

Zikuñagan ume asko bildu zen festara

■ Patxin eta Potxin pailazoek bildu zuten jenderik gehien, atzo arratsaldean.

UMEEN festa arrakastatsua egin zuten atzo Zikuñagan, goiz eta arratsaldez. Goizean, umeentzako jolasak behar zuten, baina, gurasoak ere animatu ziren eta festa polita sortu zen. Arratsaldean lehenengo eskola zaharreko estalpea bete egin zen haur eta gurasoak, Patxin eta Potxin pailazoak ikusteko. Pailazoek parrez eta dantzan jarri zituzten guztiek. Ondorenean txokolatada izan zuten gaztetxoeneak.

Antolatzaileak gustora zeuden auzoko festak izandako erantzunarekin. □



Patxin eta Potxin, umeak aho zabalik dituztela.

JASOTA BEZALA

Hernaniko Ezker Batuari pazientzia haundiarekin

Ostirala 10, arratsaldeko hirurak eta gure amak prestatutako lenteja goxoak kontraeztarritik joan zaizkit!! Hara non, Euskadi Irratian, Hernaniko Ezker Batuak Batasuna salatzen zuen beraien zinegotzi bat salatuz hainbat kartel ipini direlako. Beraiek zinegotziak lapurtu! Hori esatea ere!

Batek, patuaren halabeharrez, Bildu Hernaniri eman zion bere bozka eta nere oinarrizko eskubideak egunero zapalduta ikusten ditudanez, hainbat zehaztasun egin nahiko nizkiode Hernaniko Ezker Batuari:

1. Azken 16 hilabeteetan Hernaniko Ezker Batuak ez du inolako pausorik eman Bildu Hernanirenei ordezkaritza politikoa bermatzeko, ziurtatzeko, onartzeko. Bildu Hernaniri ez dio inoiz boto eskubidea onartu, eta ez du inongo keinurik egin Bildu Hernanirenei errazteko: Batzordeen deialdiak eta gai ordenak eman, udal informazioa pasa, batzordeetara

gonbidatu, eta abar, eta abar. Hernaniko Ezker Batuak besteak bezala jokatu du.

2. Alderdi politiko baten ilegalizazioa, 3600 herritarrek bozkatu duten herri plataforma baten ilegalizazioa eta zinegotziak aukeratzeko modua parekatzea - proporcionaltasuna aipatuz- iraingarrria eta lotsagarrria da. Hemen oinarritzko eskubideei buruz hitz egiten ari gara. Beraz seriotasun

pixka bat eskertuko nuke.

3. Azkenik eta ez luzatzeko, Hernaniko Ezker Batuari esan nahiko nioke badagoela modu bat beraien konpromiso ezkertiarrak gauzatzeko. Zinegotzi kargu bat hartu ez dutenez, bigarren horretaz beste batean hitz egingo dugu, badute zinegotzi hori Bildu Hernanirenei ordezkarri baten eskuetan jartzear. Borondate kontua da.

Mikel Arrieta Iraola



Zure Leku' enpresari adjudikatu dio Udalak kaletegi-gida berria

UDALAK adjudikatu du Hernaniko kaletegi-gida berria eta *Zure Leku* enpresak egingo du. Hernaniko planoaz gain, gida historiko monumentala izango du publikazio honek, eta baita zerbitzu sozial eta bestelako herriko zerbitzuei buruzko informazioa ere. Gida hau Herna-

niko web orrian jarriko da www.hernani.net, eta lagundu duten entitateak ere azalduko dira.

Udalak argi utzi nahi izan du *Zure Leku* egingo duen gida honetan duela parte eta ez duela zerikusirik beste enpresak egin lezazketen gidian. □

Molotoff irratiko programazio berria prestatzeko bilera

MOLOTOFF irratian bilera da- go datorren asteazkenean, kurto berriko programazioa pres-

tatzeko. Programa egin nahi dutenak azaldu, arratsaldeko 20:00etan Molotofferan. □

Dultzaina, klarinete eta txalapartan Iekua dago Musika Eskolan

HERNANIKO Musika Eskolan tokia bada oraindik dultzaina, klarinetea edo txalaparta jotzen ikasi nahi duen jendearentzat. Interesatuek Udaletxeko 2garren solairuan

egin behar dute matrikula, astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00etara. Izen ematea kurtoa hasi baino lehen egin behar da. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulutorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- Gauzez: Orue
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu, 2 ume zaindu eta etxeak lanak egiteko. 7:30etatik- 15:30etara gutxi gorabehera. Irakasle egutegia eta Aieten da. Deitu: 943 31 47 84 - 669 89 10 34

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta berts-berts, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (**Sta Barbara 42**)

AUXILIAR Administratiboa. Eusko Jaurlaritzak, Udaletxeak: Zarautz (6 plaza), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informa zaitez: 943 43 41 27

TXOFERRAK. Plaza fijoak Eusko Jaurlaritzak, Udaletxe, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

SUKALDE lagunzaileak, garbitzaileak, serbitzariak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundi, eskolatzen.. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

HAURTZANDEGI publikoak, behar dituzte: irakasleak, edukatzaileak, zaintzaileak, asistentak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

LIBURUTEGIAK, rezpzionistak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

LABORATORIOKO AUX. Teknikoa. Depuradoratako ur kontrolatzalea, analisi klinikoak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

BASOZAINA, 17 plaza, Administrazio Publiko Saila. Informa Zaitez: 943 43 41 27

KONTSERJEAK, lan postuak, Udaletxe, Eusko Jaurlaritzak, Eraikuntza publikoak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

SUHILTZAILE. Postu libreak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko parketan. Kondizio ekonomiko ezin hobeak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

REZEPZIONISTA-Telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzak eta Udaletxeetan. Laster hasteko. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO GOI MAILAKO TEKNIKARI MASTERRA

- ✓ LANEKO SEGURTASUNA
- ✓ HIGIENE INDUSTRIALIA
- ✓ ERGONOMIA
- ✓ Urriak 1-ean

MATRÍKULAZIO EPEA
IRAILAK 20an bukatuko da.

UROLALDE AKADEMIAN dauzkazun aukerak:

- | | |
|--------------|-----------------------------------|
| - IKASTAROAK | - MEKANOGRAFIA |
| - HIZKUNTZAK | - HAUR, GAZTE ETA LORTZEKO AUKERA |
| - OFIMATIKA | HELDUENTZAT |

UROLALDE, S.L. - Onddi kalea, 1. - Tel.: 943 33 37 11 - HERNANI

